

## ZERGA ITUNDUEN BIDEZKO DIRU-BILKETA BIZKAIAN

### 2021EKO ABUZZTUA

#### I. ZENBATEKO OROKORRAK

##### a) Zerga-bilketa likido guztira

Abuztuan, zerga itunduen bilketa metatua % 22,5 igo da aurreko urtearekin alderatuta, eta 5.039,6 milioi eurora iritsi da, 2020an 4.115,4 milioi eurokoa izan zenean. Horrek esan nahi du 924,2 milioiko alde positiboa dagoela bilketa likidoan, eta ekitaldirako aurrekontuan jasotako guztizko zenbatekoaren (7.341,6 milioi euro) % 68,6.

Emaitzak aztertzean, kontuan hartu behar da ekitaldi bietan ziurtatutako diru-bilketan agertzen diren zifrak ez direla homogeneoak; izan ere, aurreko ekitaldian zein oraingoan pandemiak finantza egoeran eta zergadunengan sortutako eragin kaltegarriak arintzeko hartutako neurriek zerga sarreren egutegiari zein bildutako zenbatekoei eragiten diete, noski.

Barne-doikuntzei dagokienez, adierazi behar da Bizkaiak beste lurraldeei egindako ordainketak 225,0 milioi euro egin duela gora, hau da, % 39,8 igo da. Izan ere, doitu egin dira maiatzean BEZagatik sartutako 400 milioi euroak, 2019ko ekitaldiko akta bakarrei buruz gainerako zerga-administrazioekin egindako akordioei dagozkienak. Bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 30,7 igo dira.

ABUZZTUAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2021	2020	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	5.509.619,3	4.435.619,2	1.074.000,1	24,2
FFAAen barneko doikuntza guztira	-790.239,2	-565.270,9	-224.968,4	39,8
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	4.719.380,1	3.870.348,4	849.031,8	21,9
Gustizko doikuntza Estatuarekin	320.217,5	245.019,5	75.197,9	30,7
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZZTIRA</b>	<b>5.039.597,6</b>	<b>4.115.367,9</b>	<b>924.229,7</b>	<b>22,5</b>
Gauzatze-ehunekoa	%68,6	%50,6		



## b) Zerga-bilketa gordina eta itzulerak kudeaketa propioa dela eta

Kudeaketa propioko zerga itunduen bidezko diru-bilketa gordina 6.550,7 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino %21,1 gehiago, izan ere, orduan 5.411,5 milioi bildu ziren. Itzulketek ere % 18,8ko igoera izan dute, iazko 1.541,1 milioietatik gaur egungo 1.831,3 milioietara. Bi egoera horiek batuta, kudeaketa propioaren bidez bildutako zenbateko likidoa %21,9 igo da.

ABUZTUAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2021	2020	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	6.550.676,5	5.411.455,1	1.139.221,4	21,1
Itzulitakoak	-1.831.296,3	-1.541.106,7	-290.189,6	18,8
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	4.719.380,1	3.870.348,4	849.031,8	21,9

## II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko zergen bilketa likidoa % 20,9 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2.594,6 milioi eurora iritsiz, bilketa gordina % 18,6 handituz eta itzulketak % 6,9. Zeharkako zergetan 2.086,1 milioi izan dira, % 22,7ko gorakadarekin, bilketa gordina % 22,9 igo da eta itzulketak % 23,2. Tasak eta bestelako diru-sarrerak % 54,1 igo dira, eta 38,7 milioira iritsi dira, aurreko ekitaldiko 25,1 milioien aldean.

ABUZTUAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2021	2020	diferen.	2021	2020	%	2021	2020	%
Zuzeneko zergak	3.040.477,3	2.562.781,8	18,6	445.875,5	417.038,1	6,9	2.594.601,8	2.145.743,8	20,9
PFEZa	2.377.253,4	1.981.970,6	19,9	426.142,7	396.707,6	7,4	1.951.110,6	1.585.263,0	23,1
Sozietateen gaineko zerga	475.732,5	497.235,6	-4,3	10.811,7	6.622,8	63,3	464.920,8	490.612,9	-5,2
Gainerako zuzeneko zergak	187.491,4	83.575,6	124,3	8.921,1	13.707,7	-34,9	178.570,3	69.867,9	155,6
Zeharkako zergak	3.469.676,9	2.822.467,7	22,9	1.383.602,6	1.122.980,3	23,2	2.086.074,3	1.699.487,4	22,7
BEZa	2.472.305,4	1.949.701,1	26,8	590.273,3	555.333,6	6,3	1.882.032,2	1.394.367,5	35,0
BEZa barneko doikuntza				490.351,4	312.862,7	56,7	-490.351,4	-312.862,7	-56,7
Zerga bereziak	881.470,6	786.970,4	12,0	302.183,6	254.181,6	18,9	579.287,0	532.788,8	8,7
Gainerako zeharkako zergak	115.900,9	85.796,2	35,1	794,4	602,4	31,9	115.106,4	85.193,8	35,1
Tasak eta Bestelako Sarrerak	40.522,2	26.205,5	54,6	1.818,2	1.088,3	67,1	38.704,0	25.117,2	54,1
<b>BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA</b>	<b>6.550.676,5</b>	<b>5.411.455,1</b>	<b>21,1</b>	<b>1.831.296,3</b>	<b>1.541.106,7</b>	<b>18,8</b>	<b>4.719.380,1</b>	<b>3.870.348,4</b>	<b>21,9</b>
Doikuntzak Estatuarekin	517.661,9	447.964,0	15,6	197.444,5	202.944,5	-2,7	320.217,5	245.019,5	30,7
Doikuntzak BEZa	472.967,5	407.483,6	16,1	11.109,6	15.474,6	-28,2	461.857,9	392.008,9	17,8
Doikuntzak Zerga bereziak	44.694,5	40.480,5	10,4	186.334,9	187.469,9	-0,6	-141.640,4	-146.989,4	3,6
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>7.068.338,4</b>	<b>5.859.419,1</b>	<b>20,6</b>	<b>2.028.740,8</b>	<b>1.744.051,2</b>	<b>16,3</b>	<b>5.039.597,6</b>	<b>4.115.367,9</b>	<b>22,5</b>



#### a) PFEZ

PFEZaren bilketa likidoa % 23,1 igo da aurreko urteko abuztuarekin alderatuta, bilketa gordina % 19,9 igo delako eta itzulketak % 7,4 (396,7 milioitik 426,1 milioira).

Osagaiek goranzko bilakaera izan dute. Lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuak % 24,6 igo dira; lan-etekinen gaineko atxikipenak, % 5,6; kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak, % 35,0; ondare-irabazien gaineko atxikipenak, % 21,3; kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenak, % 8,8; eta sarien gaineko karga berezia, bilketa 6,8 milioira igo baita aurreko ekitaldiko 2,5 milioietatik. Kuota diferentzialaren emaitza negatiboa murriztu egin da (-141,2 milioi euro, aurreko urteko -367,9 milioien aldean), joan den urtean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen-kanpaina irailaren 30ean amaitu zelako, ohiko iraupenarekin alderatuta hiru hilabete gehiago luzatuz eta diru-sarrerak data horretara arte atzeratuz (eta azaroaren 30era arte, diru-sarrera zatikatuz gero).

#### b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentziala % 12,1 jaitsi da (bilketa gordina -% 11,0 jaitsi da) eta 361,1 milioikoa da, aurreko urteko 405,7 milioien aldean; itzulketen bolumena, berriz, 10,0 milioikoa, % 55,8 igo da). Aurreko epigrafean aipatutako gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren bilketa % 5,2 jaitsi da, 2020ko abuztura arte lortutako 490,6 milioietatik ekitaldi honetako 464,9 milioietara.

#### c) Zuzeneko zergapetzearen gainerako zergak

Zuzeneko zergen gainerako figuretan, bilketa likidoa % 155,6 handitu da, aurreko urteko abuztuan 69,9 milioikoa izatetik gaur egungo 178,6 milioikoa izatera igaro baita. Horrela, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak (% 82,0) eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak (% 38,9) gora egin dute, eta batez ere ondarearen gaineko zergak (1,8 milioitik 80,0 milioira), borondatezko aurkezpen-aldiaren amaiera-data desberdina delako (2021eko ekainaren 30ean eta 2020ko irailaren 30ean). Bestalde, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga % 16,6 jaitsi da, behin Arabako eta Gipuzkoako Aldundien aldeko doikuntza eginda, 1,6 milioikoa, aurreko urtean baino % 63,6 txikiagoa.

#### d) BEZ

BEZaren bilketa % 35,0 igo da, 1.394,4 milioi eurotik 1.882,0 milioi eurora. Bilakaera positiboa bilketa gordinaren % 26,8ko irabaziari dagokio, 1.949,7 milioi eurotik 2.472,3 milioi eurora igaro baita (funtsean, akta bakarrekiko aipatutako diru-sarrerengatik), itzulketen iguera txikiarekin alderatuta (% 6,3). Bestalde, zerga-figura horren barneko doikuntzak ordainketak % 56,7 igotzea ekarri du, 490,4 milioi eurotan kokatuz. Arabak 135,4 milioiko doikuntza jaso du (% 23,4 gehiago), eta Gipuzkoak 355,0 milioikoa (% 74,7 gehiago).



#### e) Zerga bereziak

Zerga bereziek % 8,7 igo dute bilketa aurreko ekitaldiarekiko; bilketa gordinak % 12,0 egin du gora, eta itzulketek % 18,9. Gora egin dute hidrokarburoek (% 14,0), alkoholek (% 29,7), garagardoak (% 16,4) eta elektrizitateak (% 3,3), eta behera egin dute bitarteko produktuek (-% 16,8) eta tabako-laboreek (-% 15,0). Zerga horien barne doikuntzek eragin handia izan dute emaitza horietan. Kontzeptu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak 298,3 milioi euro ordaindu dizkie Arabakoari eta Gipuzkoakoari (% 20,3ko igoera), eta lehenak 73,8 milioi euro jaso ditu (% 24,9 gehiago) eta bigarrenak 224,5 milioi euro (% 18,9 gehiago).

#### f) Zeharkako zergapetzearen gainerako zergak

Zeharkako zergen gainerako figurak, oro har, % 35,1 igo dira. Zehazki, ondare-eskualdaketen gaineko zergak (% 39,1), egintza juridiko dokumentatuek (% 22,6), garraiobide jakin batzuen gaineko zergak (% 58,8), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergak (% 25,4), aseguru-primen gaineko zergak (% 32,2) eta joko-jarduerenak (% 8,1) gora egin dute.

#### g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasen eta bestelako diru-sarreraren bilketa % 54,1 igo da, 25,1 milioi eurotik 38,7 milioi eurora. Joko-tasek % 99,3ko gorakada izan dute, makina eta aparatu automatikoenak % 245,4koa (2,4 milioitik 8,1 milioira igaro da, aurreko ekitaldiko ostalaritza-sektorearen itxierak eraginda), eta, neurri txikiagoan, txartelengatik eta bestelako apustuengatik tasek (%11,1); bingo-jokoarenak, berriz, jaitsi egin dira (-% 43,3). III. kapituluko gainerako kontzeptuei dagokienez, igo egin dira bai berandutze-interesak (% 15,4) eta premiamendu-errekarguak (% 88,6), bai zerga-zehapenak (% 45,6).

#### h) Estatuarekiko doikuntzak

Joan den uztaileko txostenean adierazi genuen bezala, Estatuarekiko doikuntzak, ekitaldiko lehen hiruhilekoko BEZaren bilketari eta aurreko ekitaldiko likidazioari dagozkienak, % 17,8 igo dira 2020ko aldi berarekin alderatuta, bai inportazioei dagokienez (% 22,4), bai barneko eragiketei dagokienez (% 8,8).

Zerga Berezien doikuntzen emaitza negatiboa % 3,6 murriztu da, batez ere Tabako Lanetatik kobratu beharreko zenbateko handiagoagatik (10,0 milioi 2021ean eta 0,1 milioi 2020an); aldiz, dagokion barneko eragiketetako hidrokarburoek % 2,1 gehiago ordaindu dute.



**TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOIA.** Aurreko ekitaldiarekiko konp.  
**RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS.** Comparación ej. anterior

2021

Aldiak: urtarrila-abuztua  
 Periodos: enero-agosto

(euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2021	2020				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	1.923.884.594	1.821.053.278	102.831.315	5,6	2.780.000.000	69,2
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	63.963.703	47.370.161	16.593.543	35,0	68.000.000	94,1
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	29.861.176	27.461.888	2.419.288	8,8	41.000.000	72,9
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	19.979.779	16.477.382	3.502.397	21,3	26.000.000	76,8
SARIEEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	6.800.944	2.468.153	4.332.791	175,5	25.000.000	27,2
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	47.815.539	38.366.506	9.449.033	24,6	50.000.000	95,6
PFEZ KUOTA DIFERENZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-141.215.099	-367.934.392	226.719.293	61,6	-45.000.000	*
<b>PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.</b>	<b>1.951.110.635</b>	<b>1.585.262.976</b>	<b>365.847.659</b>	<b>23,1</b>	<b>2.945.000.000</b>	<b>66,3</b>
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	63.963.669	47.370.132	16.593.537	35,0	68.000.000	94,1
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	29.880.913	27.461.884	2.419.228	8,8	41.000.000	72,9
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	19.979.776	16.477.379	3.502.397	21,3	26.000.000	76,8
SOZIEATEAK KUOTA DIFERENZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	351.096.484	399.303.866	-48.207.182	-12,1	367.000.000	90,7
BALANTZE-EGUNERATZEA / ACTUALIZACIÓN DE BALANCES						
<b>SOZIEATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES</b>	<b>464.920.841</b>	<b>490.612.861</b>	<b>-25.692.020</b>	<b>-5,2</b>	<b>522.000.000</b>	<b>89,1</b>
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENDA NO RESIDENTES	14.562.019	10.484.013	4.078.005	38,9	18.500.000	78,7
QINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	62.780.892	34.489.857	28.291.035	82,0	60.000.000	104,6
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	80.032.884	1.822.500	78.210.134	4.291	79.000.000	101,3
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO. S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	14.782.528	15.381.248	-598.721	-3,9	14.500.000	101,9
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO. S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	6.412.004	7.690.055	-1.278.051	-16,6	20.266.870	31,6
IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
<b>BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>178.570.327</b>	<b>69.867.924</b>	<b>108.702.403</b>	<b>155,6</b>	<b>192.266.870</b>	<b>92,9</b>
<b>ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS</b>	<b>2.594.601.803</b>	<b>2.145.743.762</b>	<b>448.858.042</b>	<b>20,9</b>	<b>3.659.266.870</b>	<b>70,9</b>
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	1.882.032.150	1.394.367.535	487.664.614	35,0	1.912.729.860	98,4
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-490.351.356	-312.862.698	-177.488.659	-56,7		*
ONDARE ESQUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	56.378.598	40.525.261	15.853.337	39,1	60.000.000	94,0
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS	13.006.280	10.611.628	2.394.653	22,6	18.000.000	72,3
GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	7.926.923	4.992.044	2.934.879	58,8	8.000.000	99,1
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IMPTO. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALCOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	1.084.033	835.718	248.314	29,7	1.729.976	62,7
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	40.102	48.186	-8.084	-16,8	130.754	30,7
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	483.736.506	424.408.714	59.327.792	14,0	705.201.583	68,6
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-4.146	-53.477	49.332	92,2	65.377	*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	77.505.692	91.195.894	-13.690.201	-15,0	192.862.150	40,2
GARAGARDOA / CERVEZA	329.396	282.892	46.504	16,4	704.060	46,8
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	16.595.462	16.070.895	524.567	3,3	30.375.160	54,6
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-40.659	-51.204	10.545	20,6	-120.696	*
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	34.385.225	26.011.668	8.373.556	32,2	42.500.000	80,9
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	2.760.546	2.554.450	206.097	8,1	3.400.000	81,2
BEROTEGI-EFEKTUOK GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	689.531	549.935	139.596	25,4	1.000.000	69,0
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS</b>	<b>2.086.074.283</b>	<b>1.699.487.443</b>	<b>386.586.840</b>	<b>22,7</b>	<b>2.976.578.224</b>	<b>70,1</b>
JOKO TASAK / TASAS DE JUEGO						
BINGOA / BINGO	733.000	1.293.388	-560.387	-43,3	2.000.000	36,7
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	8.259.763	2.391.601	5.868.162	245,4	8.000.000	103,2
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	2.074.700	1.867.920	206.780	11,1	3.000.000	69,2
<b>JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO</b>	<b>11.067.463</b>	<b>5.552.909</b>	<b>5.514.555</b>	<b>99,3</b>	<b>13.000.000</b>	<b>85,1</b>
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE PREMIO	8.799.757	4.666.707	4.133.050	88,6	7.000.000	125,7
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	10.923.921	9.463.281	1.460.640	15,4	16.000.000	68,3
ZEHAPENAK / SANCIONES	7.912.895	5.434.266	2.478.629	45,6	10.000.000	79,1
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS</b>	<b>38.704.037</b>	<b>25.117.162</b>	<b>13.586.874</b>	<b>54,1</b>	<b>46.000.000</b>	<b>84,1</b>
<b>ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO</b>	<b>4.719.380.123</b>	<b>3.870.348.367</b>	<b>849.031.756</b>	<b>21,9</b>	<b>6.681.845.094</b>	<b>70,6</b>
BEZ: DOIKUNTZAK / AJUSTES IVA						
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	318.283.952	260.031.622	58.252.330	22,4	547.758.680	58,1
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	143.573.918	131.977.319	11.596.599	8,8	311.445.970	46,1
<b>BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.</b>	<b>461.857.870</b>	<b>392.008.941</b>	<b>69.848.929</b>	<b>17,8</b>	<b>859.204.650</b>	<b>53,8</b>
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES						
ALCOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	25.478	40.821	-15.343	-37,6	115.667	22,0
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	19.677.943	20.965.925	-1.287.981	-6,1	25.094.710	78,4
HIDROKARBUREN GIZ.B.DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	50.228	5.262	44.966	854,6	10.058	499,4
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-179.959.542	-176.269.668	-3.689.874	-2,1	-244.359.110	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	3.379	163.757	-160.378	-97,9		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	10.044.485	76.493	9.967.992	13,031	9.876.956	101,7
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	25.933	37.045	-11.113	-30,0	145.841	17,8
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	8.491.702	7.990.952	500.750	6,3	9.655.680	87,9
<b>ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES</b>	<b>-141.640.394</b>	<b>-146.989.413</b>	<b>5.349.020</b>	<b>3,6</b>	<b>-199.460.198</b>	<b>*</b>
<b>ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS</b>	<b>5.039.597.599</b>	<b>4.115.367.894</b>	<b>924.229.705</b>	<b>22,5</b>	<b>7.341.589.546</b>	<b>68,6</b>